

ERREF.: 2019/AI/03/33

UDALAREN OSOKO BILKURA

2019ko urtarrilaren 31ko ohiko bilera

BERTARATUTAKOAK

ALKATE-UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
XABIER LOSANTOS OMAR
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO
IDOIA BLASCO CUEVA
IKER AGIRRE BARTZENA (1)

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA AZALDUTA:

NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

EUSKARA ITZULTZAILEA

MATTANE URIARTE AND.

KONTU HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) 19:15ean sartu da, aztergaien zerrendako 2. puntua eztabaidatzen aritu direnean.

Leioako Udaletxean bi mila eta hemeretzi urtarrilaren hogeita hamaikako arratsaldeko zazpiak eta bi minutuan bildu da elizate honetako Osoko Bilkura, , **alkate udalburua M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea delarik**, eta ertzean aipatu diren zinegotziak bertan direla, Udalbatza zuzenbidez eta berez osatzen duten kideen gehiengo legala osatuz, eta bertan izan da **CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusi andrea**, ohiko saioa egite aldera, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, alde aurretik alkate udalburu andrearen ekimenez horretarako deitu dena, aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Leioako Udaleko Herritarrek Parte Hartzeko eta Udal Araudi Organikoko 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki, 182. BAO n argitaratu zena 2013ko irailaren 23an, urte horretako ekainaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiz onartutakoa.

Ordu horretan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio.

I.- EBAZPEN ATALA

1.- HONAKO AKTA HAUEK ONESTEA:

Aipatutako saioko akta onartzeke zegoela aipatu zen, eta Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onar zezan.

- 2018-11-29ko ohiko osoko bilkura.
- 2018-12-13ko ezohiko osoko bilkura.

- 2018-12-27ko ohiko osoko bilkura.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Osoko Bilkurak, bilkurara bertaratutako kide guztiek aho batez hala erabaki baitzuten, arestian aipatu diren osoko bilkurako aktak onetsi zituen; horri buruzko oharrik ez zen egin.

2.- 2019KO AURREKONTUAREN EGIKARITZEARI BURUZKO ARAUAK XEDATUTAKOAREKIN BAT, INDARREAN KONTRATURIK EZ DUTEN FAKTUREN ERAGOZPENA SALBATZEA:

Udalbatzaren onespeneraren menpe jarri zen 2019ko urtarrilaren 22ko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian emandako 2. irizpenaren proposamena (egiaztagiria espedientean jaso da).

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko hamabi botoren gehiengoarekin (bileran egon diren Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzien eta Euskal Sozialistak taldeko hiruen botoak), kontrako lau botorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzienak) eta lau abstentziorekin (EH Bildu Leioa taldeko bi zinegotzienak eta Leioako Alderdi Popularreko bienak), honako hau **ERABAKI DU**:

Oinarria: 2018ko abenduaren 13ko 1. Osoko Bilkuraren erabakiz hasieran onartu zen 2019ko aurrekontu orokorra.

Oinarria: 10/2003 Foru Arauak, abenduaren 2koak, Bizkaiko tokiko erakundeen aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, aurrekontuaren egikaritze-arauak, udal-aurrekontuetan nahitaezko eranskinak, “gastua fiskalizatu eta kontrolatzea” seigarren tituluan xedatutakoaren babesean, Osoko Bilkuraren aginpidea da jada amaituak dauden kontratuaren oinarrituta fakturak onartzeari buruzko eragozpenak salbatzea. Halako kasuetan, Osoko Bilkurak erabaki beharko du kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehenengo fakturaren eragozpena salbatzea eta ondoz ondokoei dagokienez, Alkatetza Udalburutzari eskuordetuko zaizkio, gorabeherak antzekoak/berdinak badira. Azkeneko atalari erreparatu, 2019. ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, jada aurrekontuaren egikaritze-araua indarrean dagoenez, aztergaien zerrendaren barruan gai modura sartuko da amaituak dauden kontratuaren fakturen eragozpena salbatzea eta, gero, Alkatetzari eskuordetzea. Egoera hori errepikatu beharko da, esaterako, hauteskunde-prozesuaren ondoren, Udalbatza aldatzen denean.

“18. OINARRIA.- AURRETIKO FISKALIZAZIO MUGATUA

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, udal kontu-bartzaileak proposatuta, abo batez erabaki zuen 10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluan aurreikusitako fiskalizazio mugatuaren ezarpena onestea. Bertan adierazten da gaien aurretiko fiskalizazioa honako alderdiak egiaztatzeke bakarrik egingo dela. Aurrekontua betearazteko honako arau hau 2015eko Udal Aurrekontuaren eranskin modura onetsi zen, eta baren bitartez C atala gehitu zen, gastu-betebeharra daukaten agiriei buruzkoa.

Aurretiko fiskalizazio mugatuaren betebeharra Leioako Udalaren mende dauden erakunde autonomoei zabalduko zaie: Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea.

Derrigorrez aurretiko fiskalizazio mugatua jasan behar duten edukiak

- a) *Aurrekontu-kreditua egotea eta proposatutakoa gastu edo betebeharraren izaeerarekiko egokia izatea.*
- b) *Betebeharrak edo gastuak organo eskudunak sortzea.*
- c) *Gastua edo betebeharra eusten duten agiriek beharrezko sinadurak eta baldintzak izatea. Horren barira, gastuaren betebeharra aitortzeko euskarri den dokumentuak zerbitzua, hornikuntza, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzeko edo oniritzia emateko arduradunaren sinadura jasoko du.*
- d) *Kudeaketaren prozesuan daukaten garrantziaren ondorioz, Osoko Bilkuran zehazten diren bestelako puntuak.*

Kontu-hartzailetza organoak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin abal izango ditu, baina horiek ez dute inolaz ere ondorioz izango dagozkien espedienteen izapidetzeak eteteko.

Horrez gain, betebeharrak osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun-planteamendurik aplikatuko.

Udal Kontu-hartzailetzak abalmena izango du material inbentariaezinen gastuak eta kontratu txikiak aurretiaz hartuko diren ala ez erabakitzeko; era berean, segidako traktuko inguruan erabaki abal izango du, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldarazpenen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren. Azkenekoa egingo da alde batera utzi gabe sail kudeatzailearen erantzukizuna. Berak egiaztatu beharko du, batetik, bere aurrekontu-partidetan kreditua dagoela eta, bestetik, gaiari buruz Alkatetza Udalburutzak onartutako argibideak, une oro nagusi izango baitira.

Geroagoko fiskalizazioa

10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluko 2. atalak aipatutako aurretiko fiskalizazio mugatua egiteko duten obligazio edo gastuei beste fiskalizazio oso bat egin abal izango zaie ondoren, fiskalizazio hori sorrarazi zuten egintzak, agiriak edo espedienteak ordezkatzeko dituen laginketa baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak erabilia; betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen araberakoak diren egiaztatu eta kredituen kudeaketan legezotasuna noraino bete den zehazteko denean. Emaiza barne-kontrolari buruzko urteko txostenean jasoko da. Txostena, abal dela, kasuan kasuko ekitaldiko kontu orokorra onestean aurkeztuko da erakundearen osoko bilkuran.

Eragozpenak eta horien izapidetzea

*Kontu-hartzailetzaren zereginak egin bitartean kontu-hartzailetza organoak aztertutako ekintza, agiri edo espedienteen mami edo itxurarekin ados ez dagoela adierazten badu, idatzi aurkeztu beharko ditu **eragozpen** horiek, erabakia edo ebaspena hartu aurretik, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70. artikulua araututakoari jarraikiz.*

*Zehazki, aurretiko fiskalizazio mugatuan aurrez ikusitako alderdiak aztertutako kontu-hartzailetza organoak arrazoituz egiaztatu beharreko alderdiak betetzen ez direla aipatzen badu, idatzi jakinaraziko dio arlo kudeatzaileari eta hori eragozpenarekin **ados badago**, espedientea zuzendu edo izapideekin atzera egin dezake.*

Espedientea zuzenduz gero, espedientea berriaz ere kontu-hartzailetza organoari bidaliko dio.

*Arlo kudeatzailea **ados ez badago**, eragozpen-txostena emango du. Kasu horretan, eragozpena gehienez bost eguneko epean eman beharko da, eta eragozpen txostenaren kopia igorri beharko da bai kontu hartzailetza organora, bai gastua onartzeko eskumena duen organora (Alkatetza edo osoko bilkura, izapidetzea*

nori dagokion kontuan hartuta, eragozpen objektuaren arabera eta bertan behera utzi bada edo ez aintzat hartuz). Hala, hurrengo bi egoerak izango ditugu:

I.- Osoko Bilkuran, ebatzi beharreko eragozpenei dagokienez (“aurretiko fiskalizazio mugatuak derrigorrez jaso behar dituen edukiak” epigrafearen A eta B atalak), ebaizpenak halaberbeharrez egin behar du aldaketaren bat aurrekontuan gastu hori estaltzeko. Hau da, honako bi kasu hauetan horrela jokatu behar du litzateke:

- a) Kreditua nabikoa edo egokia ez delako, edo organoa eskuduna ez delako, sortzen direnean.*
- b) Eragozpenak osoko bilkurak onartu beharreko obligazioei edo gastuei buruzkoak direnean.*
- c) Jada bukatuak dauden kontratuetan oinarrituta, fakturak onartzeari buruzkoak direnean. Osoko Bilkurak erabaki behar du kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehenengo fakturaren eragozpena salbatzea eta ondoz ondokoei dagokienez, Alkatetza Udalburutzari eskuordetuko zuzkio, gorabeherak antzekoak/berdinak badira. Azkeneko atalari erreparaturik, 2019. ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, jada aurrekontuaren egikaritze-araua indarrean dagoenez, aztergaien zerrendaren barruan gai modura sartuko da amaituak dauden kontratuetan fakturen eragozpena salbatzea eta, gero, Alkatetzari eskuordetzea. Egoera hori errepikatu behar du, esaterako, hauteskunde-prozesuaren ondoren, Udalbatza aldatzen denean.*

II.- Eragozpenak salbatzea Alkatetzari/ Udalburutzari badagokio, azken horrek egokitzat jotzen dituen txostenak galdegin abalko ditu, horien irizpideen arabera ebatzeko. Hori horrela, Kontu Hartzailetzaren oharrek edo eragozpenek etete-eraginik ez badute, ez zuzkio kudeaketa-organoen iritziei gailenduko, ez eta Alkatetza Udalburutzak finantza-babesean eskudun den kontrol-organuari eska diezazkiokeen txostenei ere. Kontuan izanik oharrak egiten dituzten Kontu-hartzailetzako txosten guztiak kasuan kasuko dekretuari egibizten zuzkiola Alkatetzak hori izenpetu aurretik, eta goiburuan aipatzen direla, ondorio egokiak izan dituzan txostena organo eskudunari emateko izapidea egindakotzat jotzen da.

Oinarria: Ondoren aipatzen diren kontratuen epemugari erreparaturik, jada azkenduak daude eta, beraz, indarreko kontratuak ematen duen lege-babesetik kanpo daude orain.

Oinarria: Enpresek zerbitzuak ematen jarraitzen dute eta, hortaz, egindako lanei dagokien faktura igortzen dute. Horren lekuko dira espediente honi erantsi zaion hurrengo taulan jasotako fakturak eta kontzeptuak.

Oinarria: Arloko arduradun bakoitzak fakturak ordaintzearen aldeko txostena egin du, zerbitzuak egiaz eman direla argudiatuz.

Oinarria: Ut supra atxikitako zerrendan deskribatutako zerbitzuak ematen dituzten enpresek aurkeztutako faktura ordaintzeko proposamenari eragozpen oharra egin zion udaleko Kontu Hartzailetzak 2019ko urtarrilaren 18; izan ere, jada agortuak dauden kontratuen zerbitzuak jasotzen jarraitzeak “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko funtsezko betekizun edo izapiderik espedientearen ez agertzea” dakar. Hala ere, era berean, jakinarazi zen egikaritutako prestazioa ordaintzen ez bada, toki erakundea bidegabeki aberastuko dela.

Oinarria: Sektore publikoan kontratazioa arautzen duen araudiak ezarritako erregulazioa (urriaren 30eko 30/2007 Legea eta azaroaren 8ko 9/2017 Legea), bai eta Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ezarritakoa ere, eta

Aurrekontua Egikaritzeko Arauak, indarrean dagoen 2019. urterako Aurrekontu Orokorraren eranskin gisa onartutakoa.

Lehenengoa.- Ondoren aipatzen diren fakturak ordaintzeko proposamenari udaleko Kontu Hartzaitzak egindako eragozpen oharra kentzea, bat etorri udalaren zerbitzu teknikoaren aldeko txostenarekin.

Indarreko kontratuaren babesik izan gabe, kontratuei lotuta aurkeztutako fakturen zerrenda

	Faktura-zk.	Erregistro-zk-. eta -data	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Azalpena	O.E./Izapidetza dagokion arloko arduradunaren txostena
1	TB2018/1703	6.299 (2018/12/26)	Enviser. IFK_ESA48903892.	171.281,79 €.	2018ko abenduan udal-erakinak eta -lokalak garbitzea.	BAI
2	01/19	0005 (2019/01/02)	Gardabera SL IFK_B95285011.	1.867,05 €.	Eguerdian ere euskaraz jolasean 2018ko abenduan	BAI
3	18/173	6.440 (2018/12/31)	Servicios y Equipos Caninos SL IFK_B48836779.	2.506,44 €.	Leioako txakur-zerbitzua 2018ko abenduan	BAI <i>Oharra: 166 euroko diru-sarrera 2018ko abenduko tasen kontzeptupean.</i>
4	355	0024 (2019/01/07)	Fernández Dobaran Mª Eugenia (Solagune) SLNE IFK_B95286035.	16.000,00 €.	2018ko abenduan Herrigune-Leioako udalerrian erkidegoaren hezkuntza-ekintzak koordinatzeetatik ordainsaria.	BAI
5	2018/079	6.432 (2018/12/31)	IMSA Gestores Europeos Sdad.Ltda. IFK_B95068433.	1.977,26 €.	2018ko abenduan diru-laguntzen arloan laguntza teknikoaren zerbitzuari buruzko zenbateko finkoa (2018ko urtekoa)	BAI
6	F2018/937038917 4	6.447 (2018/12/31)	T-Systems ITC Iberia SAU IFK_A81608077.	2.184,79 €.	1000740080 18-12-01etik 18-12-31ra TAO 2018 aplikazioak mantentzea (abendua)	BAI

7	18/12	6.391 (2018/12/31)	M ^a Angeles Moreno Rivas NAN_07947123W.	230,75 €.	2018ko abenduan Pinueta udal-zentroan eskainitako ile-apaindegiaren zerbitzuak	BAI
8	A12/18	6.434 (2018/12/31)	M ^a Begoña Díaz Freire NAN_30568118Z.	230,75 €.	Errekaldeko erretiratuen egoitzan ile-apaindegiaren zerbitzuak eskaintzea.	BAI
9	18A0017.	0001 (2019/01/02)	Eraman Grúas y Servicios S.A. IFK_A20044889.	9.865,41 €.	2018ko abenduan ohiko eta ohiz kanpoko ordutegian egindako zerbitzuak	BAI
10	A2018001078.	0122 (2019/01/15)	Asesores de Organización y Sistemas de Informática S.L.L. IFK_B95792784.	3.476,19 €.	2018ko abenduan ohiz kanpoko mantentze-lanak eta joan-etorriak	BAI
11	201800038	6.535 (2018/12/31)	Asociación de Asistencia Integral Lagunduz CIF_G48682678.	55.824,22 €.	2018ko abenduan ELZ kudeatzea	BAI

Bigarrena.- 305.899,59 euroko gastua (BEZa barne) onartzea.

Hirugarrena.- Ondorioz, 11 fakturen ordainketa (guztira 265.444,65 euro, BEZik gabe) onartzea.

Laugarrena.- Bidezkoa bada, hurrengo eragozpen-oharretan hornitzailea eta kontzeptua berdinak badira, Alkateak ebaztea, 2019ko aurrekontuaren egikaritze-arauak eskaintzen duen eskuordetzearen babesean.

3.- 2019KO AURREKONTU OROKORRARI EGOKITZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA.

Udalbatzaren onespeneraren menpe jarri zen 2019ko urtarrilaren 22ko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian emandako 2. irizpenaren proposamena (egiaztagiria espedientean jaso da).

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketa egin ostean, Udalbatzak, aldeko hamabi botoren gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzianak) eta zortzi abstentziorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzianak, saioan zeuden

EH-Bildu Leioako bi zinegotzienak eta Leioako Talde Popularrako bi zinegotzienak), honako hau **ERABAKI DU**:

Oinarria: 2017ko urtarrilaren 26ko 3. Osoko Bilkuraren erabakiz 2017-2020rako diru-laguntzei buruzko plan estrategikoaren inguruan (aurrerantzean, DLPE2017-202) Alkatetzaren proposamena onartu zen eta, gero, 2017ko apirilaren 27ko 5. Osoko Bilkuraren erabakiz aldatu zen, horretan Gizarte Zerbitzuen Arloan egindako proposamena sartzeko. Helburua EDEX eta FATH erakundeen alde, hurrenez hurren, 40.000 eta 31.000 euroko bi diru-laguntza izendun esleitzea zen.

Oinarria: 2018ko otsailaren 22ko 7. Osoko Bilkuraren erabakiz DLPE2017-2020 aldatzea onartu zen, 2018ko aurrekontu orokorrari erantsi ostean, udaleko eta bere erakunde autonomoetako transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskinekin bat doitu eta eguneratzeko.

Oinarria: Besteak beste, 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, diru-laguntzen arloan xedatutako arauen arabera, diru-laguntzak ematean eraginkortasuna hobetze aldera, diru-laguntzen plan estrategiko bat egin behar dela ezartzen du. Plan horrek lortu nahi diren helburuen eta eraginaren arteko lotura azaldu behar du eta aurreikus daitezkeen kostuak eta horien finantzaketa-iturriak jaso behar ditu, diru-laguntzen bidez estali beharreko behar publikoak aurreikuspenei jarraiki eskuragarri egongo diren baliabideetara egokitzeko asmoz, laguntzak sortu baino lehen.

Oinarria: Legediari jarraiki, diru-laguntzei buruzko plan estrategikoa politika publikoen plangintza-tresna da, horiek erabilera publikoko jarduera edo gizarte-interesekoa sustatzea ala helburu publikoa bultzatzea badute xede.

Oinarria: Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak beste urrats bat egin du sistema ekonomikoa hobetu eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea arautzen duten printzipioetako bat gardentasunarena da. Printzipio horrek, legean egituratzen diren beste askotariko tresnekin batera, zuzenean eragiten du diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketako eraginkortasun- eta efizientzia- mailak handitzea.

Oinarria: Urtero berrikusi/eguneratu behar da, udal-aurrekontuen kapitalaren eta diru-laguntza arrunten eranskinen arabera.

Oinarria: 2018ko abenduaren 13ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez 2019ko ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontu orokorrarekin batera onetsitako transferentzien eranskinen xedatutakoa.

Oinarria: Oso-osorik Leioako Udalaren mendeko erakunde autonomo bakoitzaren gastuen egoeran ageri diren diru-laguntzen gastuak: Euskararen Erakundea eta Soinu Atadia.

Leioako Udaleko alkate M^a Carmen Urbieta Gonzalez andreak, antolamendu juridikoak agindutako ahalmenak erabiliz eta zehazki, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenari buruzkoaren, 21.1 c) artikulua agindutakoak, ondorengo proposamena Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzordera igortzen du, ondoren osoko bilkurara bidal dadin, aurrez aipatutako kontuan hartu beharreko puntu horietan oinarrituz:

Lehenengoa.- Indarrean dagoen 2017-2020rako diru-laguntzei buruzko plan estrategikoaren I. eta II. eranskinak, Leioako Udalaren eta bere erakunde autonomoen transferentzia arruntei eta kapital transferentziei buruzkoak, hurrenez hurren, eguneratzea, 2019. ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorren edukiarekin bat.

Bigarrena.- Erabakia eta 2017-2020rako diru-laguntzei buruzko plan estrategiko eguneratua argitaratzea Leioako Udalaren gardentasun-atarian (LeioaZabalik), bai eta udal iragarki-taulan ere, eta eragina izango duten udal-unitateei onetsi dela jakinaraztea eta erakunde autonomoei ere bai.

1. ERANSKINA

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

UDALA

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA

AGINTE ORGANOKAK

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
91205	00/481.30	TALDE POLITIKOAK Talde politikoentzako diru-kopuruak	85.196,25 €.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

ENPLEGU ETA EKONOMIA SUSTAPENA

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
24104	01/481.12	ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA Tokiko merkataritza eta sustapena (1) Tokiko merkataritza eta sustapena	50.000,00 €. 35.000 €. 15.000 €.

(01) *Diru-laguntza izenduna:* Leioako Merkataritza Elkartearen Elkarte

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

HEZKUNTZA:

Ikastetxeak, erakunde autonomoak, hezkuntza-ekintzak eta herritarren partaidetza

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
33500	00/431.01	ERAKUNDE AUTONOMOAK	392.314,90 €.
32601	00/431.02	Mastitxu udal euskaltegia	1.183.527,38 €.
33500	00/431.03	Soinu Atadia erakunde autonomoa Euskara zerbitzua	302.440,87 €.

32000	00/481.11	IKASTETXEAK Ikastetxeetarako diru-laguntzak	50.000,00 €.
32000	01/481.11	IKASTETXEAK Eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak	33.000,00 €.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

PARTIDA		FUNTZIONALA	EKONOMIA
FUNTZIONAL A	EKONOMIA		
23001	00/481.01	OSASUNeko DIRU-LAGUNTZAK Osasunaren prebentzioari eta sustapenari buruzko programetarako diru-laguntza	10.000,00€

PARTIDA		FUNTZIONALA	EKONOMIA
FUNTZIONAL A	EKONOMIA		
23007	00/490.01	GARAPENERAKO LANKIDETZA Kanporako diru-laguntzak	131.723,53 €.
23007	00/490.02	Lankidetza Sahararekin (02)	34.000,00 €.
23007	00/490.03	Lankidetza Dominikar Errepublikarekin (03)	40.000,00 €.
23007	00/490.05	Lankidetza immigrazioarekin	36.000,00 €.
23007	00/490.07	Udan haurrak hartzea	12.000,00 €.
23103	00/480.10	GIZARTE-INKLUSIOA Gizarte-premia	280.000,00 €.
23103	00/480.11	Gizarte-larrialdia	297.205,00 €.
23103	02/481.01	Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka	15.000,00 €.
23103	03/481.01	Elikagaien Bankua (05)	3.000,00 €.
23103	01/481.02	Familiei laguntzea (06)	8.500,00 €.
23103	01/481.02	FIDIASi diru-laguntza (07)	5.000,00 €.
23104	00/480.00	PERTSONA ADINDUAK Etxean laguntza kontratatzekeo laguntzak	10.000,00 €.
23104	00/480.14	Mendekotasuna duten adinduei arreta eskaintzeko zerbitzua	40.000,00 €.
23102	00/480.13	FAMILIA ESKU HARTZEA Haurren tratamendu psikopedagogikoetarako laguntzak	15.500,00 €.

(02) *Diru-laguntza izenduna:* FATH (IFK: G48991608) 29.000 euro eta Euskadi Sahara Koordinadora (Elkartasunezko Karabana) (IKF: CIF FG01419035) 5.000 euro.

(03) *Diru-laguntza izenduna:* EDEX (IFK: G48124408).

(04) *Diru-laguntza izenduna:* Sortarazi (IFK: G48852578).

- (05) *Diru-laguntza izenduna:* Elikagaien Bankua (IFK: G48755438).
 (06) *Diru-laguntza izenduna:* Sortarazi (IFK: G48852578).
 (07) *Diru-laguntza izenduna:* FIDIAS- Arte eszenikoen bitartez pertsonen arteko integrazio eta garapenerako fundazioa (IFK: G95628608).

23004	00/481.00	ERRETIRATUEN ETXEAK (08)	51.000,00 €.
23004	00/481.00	ERREKALDE erretiratuen etxeari diru-laguntza	20.085,56 €.
23004	00/481.00	PINUETA erretiratuen etxeari diru-laguntza	18.571,62 €.
23004	00/481.00	LAMIAKO erretiratuen etxeari diru-laguntza	7.973,12 €.
23004	00/481.00	TXORIERRI erretiratuen etxeari diru-laguntza	4.369,70 €.

(08) *Leioako erretiratuen etxeei diru-laguntza izendunak*

23101	00/481.07	BERDINTASUN ARLOA Emakumeen elkarteei diru-laguntza	13.000,00 €.
-------	-----------	--	---------------------

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

HIRIGINTZA

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
13600	00/420.01	SUTEEN AURKAKO ZERBITZUA Suteak itzaltzeko zerbitzua	220.000,00 €.
44110	00/481.02	MUGIKORTASUNA laguntzak elkarteei (09)	4.000,00 €.
15001	00/480.15	UDAL ETXEBIZITZAK Alokairua eta etxebizitza hutsa	50.000,00 €.

(09) *Diru-laguntza izenduna: Leioako taxi-gidarien elkartea*

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

KULTURA

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
33002	17/481.15	LAMIÑA KULTUR ELKARTEA (10) Lamiako Kulturgunea	24.031,13 €.
33003	18/481.15	AUZOTARROK KULTUR ELKARTEA (11) San Bartolome Kulturgunea	24.031,13 €.
33401	02/481.15	KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAK	27.500,00 €.
33401	16/481.15	Kultura taldeak	55.000,00 €.
33401	07/481.15	Auzoetako jai-batzordeak	10.251,92 €.
33401	08/481.15	Leioako Musika Banda (12)	3.000,00 €.
33401	21/481.15	Orphea Ganbera Abesbatza (13)	14.680,00 €.

		Kirol Zaleak	
33701	01/471.00	LEIOA GAZTEGUNEA ATERPEA Beka Gazteak 2017-2019	60.000,00 €.

(10) Diru-laguntza izenduna: Lamiako Kulturgunea "Lamiña Kultur Taldea".

(11) Diru-laguntza izenduna: San Bartolomé Kulturgunea "Auzotarrok Kultur Elkarte".

(12) Diru-laguntza izenduna: Leioako Musika Banda.

(13) Diru-laguntza izenduna: Orpheo Ganbera Abesbatza.

(14) Diru-laguntza izenduna: Kirol Zaleak

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

KIROLA

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
		KIROLAK SUSTATZEA	
		Kirol taldeentzako diru-laguntza	
34102	01/481.18	Kirol egokiturako diru-laguntza	74.131,80 €.
34102	13/481.18	Leioa K.E. diru-laguntza (15)	20.000,00 €.
34102	08/481.18	Sakoneta gimnasia erritmikoko kluberako diru-laguntza (16)	98.738,25 €.
34102	09/481.08	Leioa Saskibalo Talderako diru-laguntza (17)	44.692,05 €.
34102	10/481.08	Waterpolo talderako diru-laguntza (18)	35.337,90 €.
34102	11/481.08	Leioa Txirrintxu Elkarerako diru-laguntza (19)	19.987,50 €.
34102	12/481.08		11.051,20 €.

(15) Diru-laguntza izenduna: Leioa kirol elkarte.

(16) Diru-laguntza izenduna: Gimnasia erritmikoko kluba.

(17) Diru-laguntza izenduna: Leioa Saskibalo Taldea.

(18) Diru-laguntza izenduna: LLeioako igeriketa kirol kluba.

(19) Diru-laguntza izenduna: Leioa Txirrintxu Elkarte.

ERAKUNDE AUTONOMOAK: **SOINU ATADIA**

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

ADMINISTRAZIO-ZERBITZUAK

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
	00/48	ADMINISTRAZIO-ZERBITZUAK	
32604	0.00	Bekak ikasleei	23.000,00 €.

ERAKUNDE AUTONOMOAK: **EUSKARAREN ERAKUNDEA**

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN ARLOA:

EUSKARA ZERBITZUA

PARTIDA		DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
FUNTZIONALA	EKONOMIA		
33501	00/480.02	EUSKARA ZERBITZUA	
33501	00/481.01	Euskara ikasteko laguntzak	22.000,00 €.
33501	00/481.02	Euskara sustatzeko diru-laguntza	15.250,00 €.
33501	00/481.02	Euskarazko errotuluetarako diru-laguntza	2.100,00 €.
33501	00/481.03	Komunikabideentzako diru-laguntza	15.000,00 €.

2. ERANSKINA

KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

UDALA

PARTIDA			DESKRIBAPENA	AURREKONTUAN AZALDUTAKOA
ORGANIKO A	FUNTZIONA LA	EKONOMIA		
0070 0	1532 0	00/77 1.00	Erkidegoak zaharberritzeko lanak	100.000,0 0 €.

**II.- OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA
KONTROLATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA**

**4.- ALKATETZA UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU
BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK, 2018-12-19tik 2019-01-23ra:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsia) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean Alkatetzak emandako dekretuen kopia, dagokion tokian ondoren artxibatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Osoko Bilkura **jakitun** geratu da.

5.- PREMIAZKO MOZIOAK

2019ko urtarrilaren 29an Leioako Alderdi Popularrak udal-erregistroan (1414/19 sarrera-erregistroa) premiazko mozioa aurkeztu zuen “*SAKONETA KIROLDEGLAREN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIO BATZORDE BEREZLA SORTZEKO*”

PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA

UAAk 42. artikuluan eta Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko Araudiak, azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuz onartutakoak, 91.4. artikuluan xedatutakoarekin bat, mozioaren premia bozkatzeari ekin zitzaion eta Osoko Bilkurak gaiaren premia ezestea erabaki zuen aurkako hamabi botoen gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldearen bederatzi zinegotzienak eta Eusko Alderdi Sozialistaren hiruenak) eta aldeko zortzi botorekin (Esnatu Leioa taldearen lau zinegotzienak, saioan zeuden EH-Bildu Leioako bi zinegotzienak eta Leioako Alderdi Popularreko beste biak).

6.- GALDE-ESKEAK

Eta bederlatziak eta hemeretzi minutu direnean, alkate udalburuak saioa bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi agindua eman dio dagokion akta presta dezan, adostutako inguruabarretan onartzen dena, eta neuk, idazkari nagusia naizenez, hala ziurtatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA,